


EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK

Hazkunde egonkorra bigarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina

Urte arteko aldakuntza tasa




Eustatek argitaratu dituen kontu ekonomikoek adierazten dute 2019ko bigarren hiruhilekoan EAEko ekonomiak lehen hiruhilekoan eskuratu zuen hazkunde tasa berdindu zuela eta %2,2an jarraitu zuela, urte arteko tasan neurtuta. Tasa hori aurrerapenean zenbatetsi zena baino hamarren bat txikiagoa da. Hiruhileko arteko aldakuntza %0,6an kokatu da, hark ere aurreko datua berdinduz.

Oro har, taula makroekonomikoak baieztatzen du kanpo arloaren ekarpena hutsala dela eta hiruhileko horretan hamarren positibo batera mugatzen dela. Aitzitik, barne eskariak bizitasunari eutsi zion, nahiz eta moteltze-ko joera garbia erakutsi zuen, %2,0 hazita. Portaera hori orokorra izan zen eta bai kontsumoan bai inbertsioan hauteman zen.


Azken kontsumoa



Urte arteko aldakuntza tasa





Kapital eraketa gordina

Urte arteko aldakuntza tasa



Industriaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Eraikuntzaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa


Analisia jarduera adarren arabera egiten denean, agerian geratzen da bigarren hiru hilekoan eraikuntzak erritmoa apaldu zuela aurreko hiru hilekoaren aldean. Halere, sektorearen hazkundea gainontzekoena baino handiagoa da. Beste aldetik, industriak eta zerbitzuek hedatze arineko perfila, lehen kasuan, eta egonkortasuneko, bigarreanean, erakusten dute. Zerbitzuen banaketan, apaltze garbia hautematen da merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen adarrean, administrazio publiko, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuen bilakaera hobeak konpentsatu duena.

Zerbitzuen balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa
